

“ERIZKIZUNDI IRUKOITZA”REN AURKEZTAPENEAN (Bilbon, Diputazioko jauregian, 1984, Irailak 4)

Euskaltzainburuaren hitzak

Fr. Luis Villasante

Patxi Zurikarai, Bizkaiko Diputazioko Kultur arduraduna.

Euskaltzainkideak.

Jaun-Andreak.

Zinez egun handia da hau eta handia gaur ospatzen dugun gertaera, hots, Erizkizundi Irukoitzaren argitarapena. Hainbeste urtez itzalpean egon ondoren, noizbait ateratzen da argi zabalera, Ana Mari Etxaide euskaltzain urgazlearen nekeei eta Bizkaiko Diputazioaren diru laguntzari esker. Gure “Iker” bilduman toki hautatu bat izango du beti azterketa lan honek. Argitarapen honekin zor bat kitatzen du gaurko Euskaltzaindiak, lehen urteetakoari ohore emanez eta berarekin zubia eginez. Bai. Egun handia da hau, zinez poz hartzekoa.

Inoiz edo sarri botatzen digute arpegitara euskaldunoi ez dugula sekulan lan seriozik egin euskara den bezala ezagutzeko eta aztertzeko. Euskararen ikerketan piz-oihaletan daudela, alegia. Nik ez dut ukatuko ahapaldi horretan egon daitekeen egi puxka. Baina gauzak nola izan diren gure artean ere jakin beharra dago. Ez da egon ikastetxe nagusirik eta ez laguntza handirik lan hauek bultzatzeko. Hala ere, orain arte ezer egin ez dela dioenak ez du egia esaten; ez, behintzat, egia osoa. Eta hau da notatzekoa: askotan kanpotarrak izan direla bultzatzaileak. Izen batzuk gogoratu besterik ez dago: Landucci, Humboldt, Bonaparte, Vinson, Schuchardt, eta abar.

Baina gaur aurkeztatzen dugun lana etxekoek egina izan da. Bai. Gaur Euskaltzaindiak atsegin haundiz aurkeztatzen du euskara den bezala ezagutzeko orain dela 60 urte bururutako tresna garrantzitsu bat: *Erizkizundi Irukoitza* du izena, ezen Azkue berak hala bataiatu zuen.

Orain dela 60 urte egina, baina orain arte argia ikusi gabe egona. Berriz ere diot. Bihotz-bihotzetik eskerrak eman beharrean naiz Ana Mari Etxaideri lan hau prestatzen hartu duen nekeagatik eta Bizkaiko Diputazioari argitarapena egiteko eman duen laguntzagatik.

Azken egunok arte ez dut liburua ikusteko aukerarik izan. Gaingiroki bakarrik ikusi ahal izan dut. Ana Mari Etxaideri uzten diot, beraz, hedatuki eta xeheki liburua-
ren berri emateko kargua. Nik bakarrik esango dut zergatik eta zertarako prestatu zuten Azkuek lan hau eta guti gorabehera zer den ere bai, baina ur sakonetan sartu

gabe, zeren ez baitut astirik izan liburua behar bezala aztertzeko. Eta, azkenik liburuan ageri diren inkestatzaile eta inkestatu batzuen gainean zerbait esango dut, hortarako gaietan naizela uste dut eta.

Ana Mari Etxaidek sarreran ongi dioenez, Euskaltzaindi jaioberriak haste-hastetik izan zuen euskararen batasunaren kezka. Eta, hain zuzen, horregatik, hartu beharko ziren erabakietarako oinarri sendo eta fidagarri bat edukitzeko, agindu zuen Azkuek inkesta hau. Inkesta honek hiru atal ditu. Horregatik Hirukoitza deritzo. Lehen partea Fonetikari buruz, bigarrena Morfologiari buruz, hirugarrena Hiztegiari buruz. Beraz, Atlas bezalako bat da, orain 60 urte egina. Zoritxarrez, bitarte horretan inkestatzaile batzuen koadernoak galdu edo desagertu egin dira. Baina salbatu dena ere ez da gutxi izan.

* * *

Frantziskotarra naizen aldetik, inkestatzaile baten eta inkestatu batzuen gainean xehetasunak eman ditzaket.

Inkestatzaileen artean agertzen da bat A. M. letrekin izendatua.

Nik lehendik ere banekien —segur aski Aita Pedro Arangureni entzunik— Aita Aingeru Madariaga ibili zela Erizkizundirako gaiak biltzen. Eta horra non agertzen zaigun. Aingeru Madariaga bermeotarra zen, 1893an jaioa. 1963an Oñatiko Bidaurretan hil zen. Ameriketara ere egin zituen urte batzuk, bi txandatan edo alditan, gainera. Aita Imanol Berriatuari ere lagundu zion euskal lanetan Foruan eta Bermeon zegoenean. Euskal olerkaria zen. Erizkizundirako bilketak egin ziren urteetan Arantzazun zegoen irakasle.

Aita Aingeru Madariagak inkestatu zituenen izenak, adina eta sorlekua ere badatoz Erizkizundian. Gehienak fraideak dira.

Azkuek inkestatzaileei emandako oharretan esaten zen inkesta egiteko aukeratu behar zirela, ahal dela, beren herriko euskara huts-hutsik zekitenak. Gutxi edo bat ere eskolatu gabeak eta beren herritik sekula irten gabeak baziren, hobe. Horregatik, segur aski, galderak egiteko batez ere fraide legoak, karrerarik ez zutenak, hartu zituen Aingeru Madariagak; baina ez beti, ezen Mezakoak ere badira, eta garai hartan Arantzazun ikasketak egiten ari ziren ikasleak ere bai.

Inkestatu batzuen berriak edo albisteak ematera noa, bada:

— Juan Bautista Madariaga, fraide legoa, Kortezubiko alkate izana. Entzun dudanez, seme-alaba denak fraide eta moja joan zitzaizkion, eta alargundu zenean bera ere fraide sartu zen. Uste dut Arantzazun hil zela. Nik ez nuen ezagutu.

— Francisco Uribesalgo. Mondragoeko semea. Fraide legoa. Gaixozaina izan zen. Nik 15 urte nituenean gaixorik egon nintzen Foruko Kolejioan eta berak zaindu ninduen. 1946. urtean hil zen.

— Salvador Lopez, Arabako Billerlekoa. Legoa. Sastre ofizioa izan zuen Arantzazun. Nik ez dut ezagutu.

— Miguel Elkano Lazterra, nafarra, Juslapeña edo Txulapaingoa. Legoa. Arantzazun bizi zen. Nik ez dut ezagutu.

— Jose Francisco Arsuaga. Fraide Legoa. Lazkaoko semea. Urte askotan Arantzazuko mataderiaren ardura izan du. Oraindik bizi da eta Arantzazun dago.

– Marcelino Idoyaga. Foruko semea. Mezakoa. Oraindik bizi da. Arantzazun dago.

– Gabriel Satrustegui. Fraide legoa. Nafarra, Garzarongo semea. Urte askotan Oñatiko Bidaurretan egon zen. Ezagutu nuen. Entzuna dudanez, Oñatiko emakumeek esaten zuten: Nork ulertu horren euskara, “biñagriari” ere *ozpina* deitzen dio eta? 1949an hil zen.

– Rufino Mondragon. Aramaiokoa. Legoa. 1963an hil zen. Anitz urtez ezagutu nuen.

– Agustin Madariaga, Bermeokoa. Legoa. Ez dut ezagutu. Bermeoko komentuan bizi zen.

– Jose M.^a Ormazabal. Anoetako semea. Arantzazun ikasketak egiten egona. Urte askotan Lazkaoko udaletxean sekretario edo idazkari izan da. Arantzazuko Ama Birjinaren Nobenara urtero etortzen da.

– Francisco Gandarias. Aianguzko semea. Mezakoa. Berak eman zidan neri habitua. 1959an hil zen,

– Benito Mendia. Mezakoa. Zarauzko semea. Probintzial eta irakasle izana. 1983an hil zen.

– Pedro Rufino Aranguren. Mezakoa. Brinkoláko semea. Arantzazuko zuzendari izana. Zarauzko komentuan bizi da. Euskaltzaindiko **Euskera** aldizkarian baditu lanak.

– Celestino Zabala. Errezilgo semea. Mezakoa. Zarauzko komentuan bizi da.

Ikusten duzue, Aita Aingeru Madariagak Arantzazuko komentuan bertan aurkitu zituen hainbeste lekutako euskararen testiguak.

Aipatu ditudan artean batzuk irakasle eta kargudunak izanak dira. Baina kontuan eduki behar da Erizkizundirako gaiak bildu zirenean gaztetxoak zirela, 19 urteko edo, Arantzazun ikasle zebiltzan eta nork bere jaioterriko kutsu eta hautsak galdu gabe gordeko zituzten.

* * *

Señoras, Señores:

Tengo la inmensa satisfacción y el honor de presentar al público, convenientemente editado, enriquecido con notas e ilustrado con Mapas, el *Erizkizundi Irukoitza* o *Triple Cuestionario* —fonético, morfológico y léxico— que, programado por Azkue, fue realizado por diversos encuestadores a lo largo y ancho del país de habla vasca. La encuesta se llevó a cabo entre 1922 y 1925.

Debo dar las gracias a la Srta. Ana Mari Echaide, miembro correspondiente de la Academia y profesora de la Universidad de Navarra, por esta su magnífica contribución a los estudios vascos. Con su labor tesonera y paciente y con los Mapas ilustrativos ha conseguido poner al alcance general una panorámica de primer orden para conocer la realidad del euskara y de sus variedades hace 60 años.

Con esta publicación, que viene a enriquecer la colección “Iker”, la Academia de hoy rinde un tributo de honor a los iniciadores de la institución, salda una deuda con ellos, tiende un puente de empalme y rescata del olvido esta amplia y generosa

iniciativa de investigación que, con todas sus limitaciones —que seguramente las tiene—, no dejará de ser un instrumento de trabajo precioso para gramáticos, lexicógrafos, lingüistas y tratadistas del euskara.

A veces se dice por ahí en tono de reproche que los vascos no hemos sido capaces de hacer ningún trabajo serio para el conocimiento e investigación científica de la realidad del euskara. No seré yo quien niegue lo que puede haber de verdad en semejante reproche. Pero para ser justos hay que hacerse cargo de cuál ha sido la situación del país en los siglos pasados: sin centros de estudios superiores ni ayudas sustanciales para estos empeños ni conciencia del valor de estas actividades. Curiosamente muchas veces han sido los extraños al país los impulsores o Mecenases. Piénsese en los nombres de Landucci, Humboldt, Bonaparte, Vinson, Schuchardt, etc.

Pero tampoco han faltado iniciativas y realizaciones notables, llevadas a cabo por los autóctonos. Y entre éstas una de las más memorables es precisamente el *Erizkizundi*, especie de Atlas del euskara, realizado hace 60 años y que ahora ve la luz pública por primera vez, al menos de forma completa y satisfactoria (pues solo unos resúmenes, a todas luces insuficientes, aparecieron en la revista **Euskera**).

No estará de más señalar la razón por la que Azkue dispuso que se realizaran estas encuestas. Quería disponer de un banco de datos fidedignos a la hora de tomar decisiones para la unificación del euskara literario. Puede parecer chocante que se hiciera un Atlas con este fin un tanto pragmático y de otro plano, pero así fue.

No voy a meterme en honduras, pues no he tenido materialmente tiempo para conocer un poco a fondo el libro. Cedo la palabra a Ana Mari Echaide que con mucho más conocimiento de causa nos informará ampliamente.

A mí sólo me resta agradecer viva y cordialmente a la Excm. Diputación Foral de Vizcaya por su ayuda, sin la cual no hubiéramos podido editar el libro.